

TRINKETA. Txapelketari «gaztetasuna» emateko jokalar berriak sartu dituzte lehiaketan

Nora Arbelbide | **BAIONA**

Gaur hasiko da Frantziako Trinketeko Berezkoen Binakako Txapelketa. Aurtengoak gustu berri bat ukanen du, hain zuzen, bai antolaketaren aldetik bai jokalarientik. Gaur txapelketaren lehen faseak dira hasiko. Arratsaldeko 16:00etan, Francis Karrikart-Alain Hegiabehe-re bikotea, Xabier Retegi-J. Claude Istillarteren aurka ariko dira esku-huskan Baionako San Andresko trinketean. Ondotik trinketa berean, Pierre Duhau-Marc Berasategi, Sebastien Sorhuet-Pascal Ezkurra bikoteak neurtuko dira.

Bi partida hauetan irabazle aterako diren bi bikoteak kalifikatuko dira bigarren itzulian aritzeko. Txapelketan, oro har, hiru zatitan daude sailkatuak pilotariak. Ordezkarriak alde bate-tik, lehen itzulitik pasa behar direnak bestetik, eta azkenik zuzenean bigarren fasean sartu dituztenak. Hiru maila horiek iazko emaitzen arabera eta era «subjektibo» batean egin dituz-tela adierazi zuen Etxetok. Fi-nala ikusteko martxoaren zain egon beharko da.

Jokalar «gazteek» lehentasuna

Aurtengo txapelketak itxura berri bat hartuko du jokalarien adinari begira. Txapelketa «gaztetzeko» asmoa dutela azaldu zuen Michel Etxeto esku-huskako komisiore buruak. Horretarako gazte profesional berriei parte hartzeko aukera eman die. Iaz amateurak ziren lau gazte daude kasu horretan: Marc Berasategi, Sebastien Sorhuet, Pascal De Escurra. Sebastien Mendiburu berezko berria ordezkarietan jarri dute.

Horrek ika-mika sortu zuen. Izan ere, gaztetasuna ez dela

Berezkoen Binakako Txapelketa gaur hasiko da

Baionako San Andres trinketean abiatuko dute lehen fasea (16:00)



GAIZKA IROZ

Karrikart, Larretxea, Biscouby eta Lafitte, iazko finalean. Azken biek lortu zuten txapela.

arau bat salatu zuten frankok. «Kirolean ona ala txarra zara», entzun zitekeen txapelketa aurkeztu zutenean. Gainera, gazteak gehitzearekin, beste zenbait baztertu dituzte. Eta horrek ere kexa handitu zuen. Heldu den urtean 25 berezkoetatik 20etara pasatu nahi du federazioak, gainera. Txapelketan bost pilotari ordezkari izanen dira. Ez dutela beren gaitasuna erakusten ahaliko salatu zuten frankok. Txapelketa urteko lehiaketa garrantzitsua da.

BIKOTEAK

LEHEN FASEA: Francis Karrikart-Alain Hegiabehe, Pierre-Duhau-Marc Berasategi, Sebastien Sorhuet-Pascal Ezkurra, Xabier Retegi-J. Claude Istillarte.

BIGARREN FASEA:

A multzoa: Philippe Lafitte-J. Claude Biscouby, Olivier Larretxea-Patrick Ozafrain, Patrick Ibarola-Serge Maite, lehen fasean bigarren sailkatutako bikotea.

B multzoa: Patrick Ezkurra-Thierry Etxeto, Rene Muscarditz-Rene Dermitt, J. Francoise Aranburu-J.C. Dermitt, lehen fasean lehenengo sailkatutako bikotea.

Ordezkoak: Christophe Dardy, Thierry Itoiz, Manu Martiarena, Sebastien Mendiboure, Philippe Mugika.

ERREMINTA. Euskadiko Buruz Buruko Pala Txapelketaren finalerdietako ligaxkako aurreneko partida

Juan Pablo eta Lujan atzelarien arteko lehia gaur, Bilboko Deportivo frontoian

E. I. | **DONOSTIA**

Ezin partida ikusgarriagoarekin hasiko da gaur Euskadiko Buruz Buruko Pala Txapelketaren finalerdietako ligaxka, Bilboko Deportivo pilotalekuan. Juan Pablo Garcia eta Wladimir Lujan ariko dira finalerdietako aurreneko puntua nork lortuko. Elkarren kontra jokatzeko dute aurreneko aldia da, eta iragarpenak ez daude batere argi.

Juan Pablo errioxarrak itxura

ederra eman zuen joan den astean Ziskar II.aren kontra. Sorbaldako mina osatu ezinda ia sei hilabete egin ditu geldirik Logroñoakoak, eta lehengo maila lortzea du helburu.

Sei hilabete horietan gauza dezente gertatu dira pala munduan, eta Wladimir Lujan kubitarraren estreinaldia izan da horietako bat. Aspalditxoan zeukan Eusko Basquek begiz jota, baina ez du aurtengo arte fitxatzerik izan. Atzelari ezkertia oso

PALAKO EGUTEGIA

EGUNA	PARTIDA
Gaur	Juan Pablo-Lujan
Abenduaren 21ean	Insausti-Rekalde
Abenduaren 23an	Juan Pablo Rekalde
Abenduaren 24an	Insausti-Juan Pablo
Abenduaren 26an	Insausti-Lujan
Abenduaren 31n	Finala

ongi ari da erantzuten. Partida ikusgarriak egin ditu, biren kontra ere aritu da bakarka, eta Buruz Buruko Txapelketaren erronkari heldu dio orain. Julen Beldarrainen kontra jokatu eta irabazi zuen estreinakoa (35-27), eta Daniel hartu zuen mendean hurrena (26-35). Juan Pa-

blok, beraz, anaiaren porrota mendekatzeko aukera izango du gaurko norgehiagokan.

Binakako Erremonte Txapelketa gaur aurkeztuko dute (12:00)

Hernaniko Galarretan aurkeztuko dute gaur Binakako Erremonte Txapelketa. Bost bikote hartuko dute parte eta larunbatean bertan hasiko da txapelketa, Galarretan eta Euskalen. Txetxu Iriartek, iaz Zeberio II.aren txapela janztea lortu zuen atzelariak, ez du jokatu. Buruz Burukoaren finala horrenbeste atzeratu denez, Binakakoa ez atzeratzea erabaki du enpresak, eta beste atzelari bat ariko da Iriarteren ordez.

ESKU-HUSKA

Titinek Aspen jarraitzen badu, Olaizola II.ak Asegarcen segituko du

Ez Asegarcen ez Aspe ez dute oraindik baieztatu, baina Titin III.a eta Olaizola II.a trukatzeko da, nolabait, euren asmoa. Aspe akordioa lortu du Titin III.ekin. Akordio horren arabera, beste hiru urtez jarraituko luke Triciokoak Eibarko enpresan. Kontua da, Titin III.ak aurreakordio bat duela sinatuta Luis Benito Naldarekin, eta akordio hori apurtzea falta dela orain. Nalda, Maesku 2000ko buru ohia, Asegarcen kontseilaria da egun, eta Asegarcen eta Aspe harremanetan jarri dira. Lortu nahi duten akordioa zera da: Titin-Aspe loturak jarraitzen duen bitartean, Aimar Olaizolak Asegarcen jarraitzea. Goizuetakoak, izan ere, akordioa du sinatuta Asperekin, 2004. urteko apirilean Eibarko enpresara joateko. Asegarcetik Aspera joango den bestea, Abel Barriola txapelduna da. Heldu den urteko martxoan izango da hori.

Santo Tomas eguneko jaialdiak, zehaztuta

Esku-huskako funtzioek tradizio handia izaten dute Santo Tomas egunean, eta enpresa bakoitzak zehaztu ditu egun horretarako jaialdiak. Azpeitian, nahastuta ariko dira Asegarcen eta Aspek: Nagore-Armendariz eta Xala-Zezeaga estelarrean. Arrasaten, Asegarcen ariko dira bakarrik: Unanue-Pascual eta Olaizola I.a-Ruiz estelarrean. Etxebarrin, Aspe ariko da. Estelar ikusgarria: Titin III.a-Berna eta Goñi II.a-Lasa.

JAIALDIK

GAURKO PARTIDAK

GALARRETA. 16:00.

Juaristi-Etxeberria II.a / Iturralde-Aizpurua II.a. Ezkurra-Aizpuru / Zeberio II.a-Lizaso. Elizalde-Etxabe / Iñigo-A. Lekunberri. Urretabizkaia anaiak / Kalong-Auzmendi.

DEPORTIVO. 17:00.

Marin-Garma / Zarraga-Fernando. Euskadiko Txapelketa (finalerdietako ligaxka): Juan Pablo / Lujan. Ziskar II.a-Torre / Urkia-Beldarrain.

DONIBANE GARAZI. 16:00.

Berezkoen Binakako Txapelketa: F. Karrikart-Hegiabehe / Retegi-Istillarte. Duhau-Berasategi / Sorhuet-Ezkurra.

BIHARKO PARTIDAK

SESTAO. 22:00 (ETB1, 22:30).

Gonzalez-Eulate / Berraondo-Hirigoi. Titin III.a-Goñi III.a / Goñi II.a-Elkoro.